

## JESUS ETA SIMON ZIRENETARRA

1

Gurutze astun baten azpian  
Kalbarioko bidean,  
Jainko Semea gizon eginda  
hor eroan ezinean.  
Gorputza makal odol hustuta  
jausi-jagika batean,  
hor doa ama negar malkotan  
begi-bihotzak betean;  
ez al da inor errukituko  
hainbeste lagun artean?

3

Jesus aurretik, Simon atzetik  
gurutza bien gainean,  
gurutze batek alkartzen ditu  
ordukoz ezjakinean.  
Gurutzepean biak isilik  
alkar-laguntza finean.  
Gure Simon hau ezagutzen da  
fededunen dotrinean:  
lagundu eutsan gizona dala  
Jainkoari ezinean.

5

“Hau bizipoza! Hau jakin-nahia:  
zer gertatzen jatan niri?”  
Eta Jesusen fede-argia  
sartu jakon ziri-ziri.  
Handik gerora agertzen jaku  
kristau eginda martiri,  
bardin Errupo ta Alexander  
bere seme diran biri:  
gurutzbideko alkar-laguntzan  
hor jakon Jesus agiri.

2

Hor dator Simon Zirenetarra  
solo-lanetik etxera,  
ustekabeen behartu dabe  
Jesusi lagundutera.  
Ez daki nor dan, ezta zergaitik  
bota daben gurutzera,  
berak behingoan antz emon eutsan  
gizon on baten antzera,  
bere lepoa prest jarri eban  
Jesusenagaz batera.

4

Hitzik ez baina, ze hartuemon  
bihotzetik bihotzera!  
Nun heldu jakon Jesus Mesias  
ezagutzeko aukera.  
Gurutze-lagun eginda heldu  
dira Golgota gainera;  
begiradaka agurtzen dira  
lagun diranen antzera:  
“Gauza eder bat egin juat gaur”  
esanaz doa etxera.

6

Munduan zehar baztar askotan  
zenbat mila gurutzedun!  
Etxe ta kanpo bizitzan bertan  
zenbat aukera daukagun!  
Simeon lez, itxura baten,  
nahizta izan ezezagun,  
Beragaz topo egiteko gaur  
zer bide geratzen jakun:  
Maitasun beroz egin gaitzean  
gurutzedun baten lagun.